ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 30. zenbakia | 2024ko uztaila

# erenteria

## HERRI BIZIA



# 40 URTE HERRIA ERALDATZEN

# 40 años de empoderamiento


Errenteria, herri tentsionatua
3. ORR. >>

Madalenetako txupinazoa
6. ORR. >>

Herri Bizia
8. ORR. >>

Auzoetako emakumeen taldeek, 40 urte
12. ORR. >>

Errenteria Bizia
15. ORR. >>




# Guretzako. Más cerca.

ERRENTERIA UDALA

ZU! arreta bulego berria iritsi da goiko auzoetara.

La nueva oficina ZU! llega a los barrios de la zona alta.

HELBIDEA / DIRECCIÓN
Aldakonea, 2

ORDUTEGIA / HORARIO
Astelehenetik ostiralera
De lunes a viernes
08:00 - 14:00

ZU! Gertuago.

943 449 600 / 010
zu@errenteria.eus

BERAUN · GALTZARABORDA · KAPUTXINOAK · ALABERGA · IGANTZI


# Errenteria, en vías de ser declarada zona tensionada





***Respondiendo a la solicitud realizada por el Ayuntamiento, el Gobierno Vasco ha comenzado los trámites que para que el municipio sea reconocido como zona tensionada en cuanto a la vivienda. Ese reconocimiento, entre otras medidas, permitirá regular el precio del alquiler de las viviendas.***

Errenteria se ha convertido en el primer municipio de la Comunidad Autónoma Vasca en realizar formalmente la petición al Gobierno Vasco para ser reconocida como zona tensionada. Ese reconocimiento, entre otras medidas, permitirá regular el precio del alquiler de las viviendas. El Ayuntamiento de Errenteria es consciente de que la vivienda es una cuestión que preocupa a la sociedad, y es por ello que el Plan de Mandato Municipal 2023-2027 recoge varios proyectos para encarar este complejo reto, tal y como ha señalado el concejal de urbanismo «utilizaremos todos los instrumentos a nuestro alcance para facilitar el acceso a la vivienda».

El acceso a la vivienda es un derecho fundamental, y el Ayuntamiento cree que como institución tienen que adoptar todas las medidas posibles con el fin de facilitarlo. En mayo de 2023 entró en vigor la nueva Ley Estatal de Vivienda, que dota a las diferentes administraciones de herramientas para regular el precio del alquiler en caso de tensionamiento.

En julio del año pasado, la plataforma STOP Deshaucios presentó una moción en el pleno municipal pidiendo al Ayuntamiento de Errenteria que iniciase los trámites para que el Gobierno Vasco reconociese el municipio como Zona Tensionada y se pudieran materializar las medidas que establece la Ley de Vivienda. Esta moción, que fue respaldada por la amplia mayoría del




pleno, motivó la puesta en marcha de las acciones dirigidas a cumplir con el compromiso adquirido. «A pesar de que la declaración de un municipio como tensionado no sea obligatoria, vimos que este compromiso además era una oportunidad para estudiar más en detalle, a nivel local, las cuestiones sociales y económicas que inciden en las políticas de vivienda, al tiempo que nos permitía dotarnos de herramientas para regular el mercado inmobiliario» explican desde el área de urbanismo.

Para solicitar la declaración, el Ayuntamiento ha elaborado un análisis sobre la situación del mercado residencial «el estudio nos ha permitido obtener una fotografía actual y conocer las tendencias sobre diferentes indicadores que dan una idea del grado de tensionamiento que existe en nuestro municipio». La solicitud, además recoge un plan de acción en materia de vivienda, el cual ha sido compartido con Gobierno Vasco «dado que no existía un modelo cuando arrancamos los trabajos, hemos ido construyendo una metodología y estableciendo medidas concretas y realizables en el marco de las competencias municipales para los próximos tres años; este plan ha buscado implicar también a Gobierno Vasco en la consecución de los objetivos», añaden.

La solicitud para la declaración de zona tensionada fue presentada por el Ayuntamiento el pasado mes de febrero. En junio, el Gobierno Vasco comenzó los trámites que para que Errenteria sea reconocida como zona tensionada, y ahora el Ayuntamiento está a la espera de que se formalice dicho reconocimento. A partir de la declaración, Errenteria se adentrará en un proceso de tres años para aplicar medidas que reviertan la situación. «Muchas de las medidas y acciones recogidas en el plan requieren un marco temporal que seguramente deba superar el periodo de tres años para obtener una cierta efectividad, pero es una hoja de ruta que marcan una dirección y un compromiso, siendo las de aplicación más inmediata aquellas medidas de regulación del mercado del alquiler que marca la Ley de vivienda», aclaran.

El Ayuntamiento ha elaborado un plan de acción para los próximos





tres años, cimentado sobre cuatro ejes estratégicos: fomento del alquiler asequible; actuaciones sobre el parque de vivienda y regeneración urbana; sistema de prestaciones, ayudas al alquiler y protección de colectivos vulnerables; y gobernanza y coordinación institucional. «Ya que al tratarse de un problema complejo, es necesario abordarlo desde diferentes ámbitos y con todas las herramientas a nuestro alcance».

Aun así, una vez que entre en vigor el reconocimiento de Errenteria como zona tensionada, la Ley Estatal de Vivienda establece para estas zonas las siguientes regulaciones: prorrogar los contratos de alquiler hasta un máximo de tres años en las mismas condiciones que el contrato en vigor; limitar el precio del alquiler en los nuevos contratos, respetando las últimas condiciones que se han dado en ese contrato; limitar el precio del alquiler en las viviendas que no han estado en movimiento en base a un índice de referencia; y limitar el precio del alquiler de nuevos contratos cuando el propietario sea un gran tenedor (poseer cinco o más viviendas).

*«Udalak diagnostiko zehatza eta hiru urteko ekintza plan bat garatu ditu, lau ardatz estrategikorekin»*

## Criterios para la declaración

En diciembre del año pasado, además, el Gobierno Vasco publicó un protocolo y un mapa en los cuales indicaba qué municipios podían solicitar el reconocimiento de zona tensionada. Para que un municipio sea declarado tensionado, desde Urbanismo han detallado que es obligatorio cumplir como mínimo una de las siguientes medidas.

Por un lado, que el incremento del precio de compra o alquiler de vivienda haya aumentado un 3,2% con respecto al crecimiento acumulado del IPC de la Comunidad Autonoma Vasca (17%) en los últimos cinco años. En Errenteria el precio medio mensual del alquiler de la vivienda ha aumentado un 16,71% en los últimos cinco años, pasando de los 611,6 euros de media en 2017, a 713,8 euros en 2022.

Por otra parte, la carga media del coste de la hipoteca o del alquiler en el presupuesto personal o de la unidad de convivencia, más los gastos y suministros básicos en Errenteria se ha estimado en un 33%, superando así el 30% del límite establecido por el Gobierno Vasco.

De los dos criterios para la declaración, se cumple este segundo, si bien el primer criterio aun estando por debajo del requisito, indica una tendencia al alza la cual debe ser considerada.

## Más vivienda pública

Una de las medidas más relevantes que se recogen en el plan de acción es el de continuar ampliando el parque de vivienda pública en coordinación con el Gobierno Vasco. Esta medida toma como referencia las previsiones del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), el cual propone la creación de 1.200 nuevas viviendas, siendo el 54% viviendas públicas.

El objetivo del ayuntamiento es aumentar de «manera exponencial» el parque de vivienda pública en Errenteria. Eso supondría pasar de las 723 viviendas públicas actuales a 1.371, un incremento del 90%.

### EAE-ko lehen udalerria

Errenteria eremu tentsionatu izendatzeko izapideak aurkeztu dituen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen udalerria da. Izendapen horrek, besteak beste, alokairuaren prezioa mugatzea ahalbidetuko du. Udalak Errenteriako egoeraren diagnostiko zehatza eta hiru urteko ekintza plan bat garatu ditu, lau ardatz estrategikorekin. Ekainean, Eusko Jaurlaritzak izapideak abiatu zituen udalerria eremu tentsionatu izendatzeko, eta orain, udala zain dago eskaera behin betiko onar dadin.








# Madalenak 2024, txupinazoa







*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***

# HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



## Francisaldia, memoria y mucho +
*Maiatza eta ekaina bitartean Vicente Vadillo 'Francis'-en taupadak jaso ditu herriak.*



## Zubi berri bat
*Ya se ha instalado el puente que une Iztieta y Altzate.*





## Eztena, pura provocación
*Arte eszenikoen jaialdiak proposamen ausartak egin ditu berriro ere.*



## Como en la Rias Baixas
*Galiziako Astean denetik, baina batez ere kultur aberastasuna.*







## Beraun, sede de otro deporte
*Auzoko kirol instalazioetan hobekuntzak egin dira boleibola sustatzeko.*

## Hibaika, a lo grande
*Hibaikak herriko erraldoiekin aurkeztu ditu traineruak.*






»

## Eguzkia, burujabe izateko

Ekiherri instalará en verano su primera instalación fotovoltaica en Egiluze.



«

## Cinco intensos años

Emakumeen Etxeak bost urte bete ditu emakumeen topagune izaten.

»

## Dantzatzen, pozik

Erromeria Eguna ha traido de nuevo la danza a las plazas.





# //udal taldeen mezuak//

### VIVIENDA TENSIONADA

[PP]

La dialéctica progresista manipula el lenguaje para que la ciudadanía asuma que siempre es positiva. Sin embargo, políticamente, implica la intervención exhaustiva de lo público y, cuando eso no basta, también de lo privado. En nuestro pueblo, la falta de un plan urbanístico ha agravado la escasez de vivienda. Es insultante justificar la intervención de viviendas particulares bajo la excusa de tener más de una. Necesitamos un cambio de rumbo que respete el esfuerzo individual y brinde seguridad a quienes trabajan arduamente. El progreso debe basarse en la libertad y en la capacidad de cada persona para alcanzar sus objetivos sin la constante intervención del Estado. Solo así lograremos un desarrollo sostenible y justo para todos. Es esencial que defendamos nuestros derechos y propiedad privada para asegurar un futuro próspero y equitativo.

### DENON ARDURA DA ERRENTERIA

[Elkarrekin Errenteria]

Errenteria, comunidad activa con personas yentidades que aportan gestos y acciones para el bienestar común, y se ilusionan por transformar el municipio.

Beharrezkoa da zer hobetu behar den adieraztea, eta erakundeei, udal gobernuari, baliabideak jarri eta konponbide partekatuak proposa ditzagun eskatzea. Noski, herritarrok ere nahi dugun Errenteria lortzeko urratsakematen jarraitu behar dugu-

Compartiendo la realidad de la ciudadanía en las asambleas de barrios, valoramos los logros conseguidos, las acciones comprometidas, las preocupaciones sentidas. Kezka horiei helduko diegu, ulertuta guztiok garela erantzunkideak gure herriaren bizitzan.

Desde Elkarrekin-Podemos Errenteria agradecemos estas actitudes y trabajo que mejoran nuestra vida.

Zorionak eta mila esker!

### HACER FRENTE AL RETO DE LA VIVIENDA

[EAJ-PNV]

Uno de los mayores retos a los que tenemos que hacer frente como sociedad, es el de la vivienda. Con la declaración, por parte del Gobierno Vasco, de Errenteria como zona tensionada,no se soluciona el problema de la vivienda. Por eso es importante que el equipo de gobierno tome las riendas, y se ponga a trabajar en herramientas que son de su competencia como lo es el Plan General de Organización Urbana. Plan que deberá recoger la tipología y número de viviendas a edificar en los próximos años, de esta manera sabremos hacia donde transitamos y con que medios contamos para hacerle frente a este reto. El plan actual debería estar revisado en el 2012, han pasado 12 año y todavía no tenemos el nuevo Plan. Desde EAJ-PNV trabajaremos para que el nuevo Plan General de respuesta al reto de la vivienda, entre otros.

### UN HOMENAJE A AVELINA JAUREGUI

[PSE-EE]

Este curso celebramos el 40º aniversario del programa de asociaciones de mujeres de barrios, un camino que durante doce años abanderó en nuestro pueblo Avelina Jauregui. Ya en 1979, Avelina empezó haciendo historia al convertirse en la primera mujer concejala de Errenteria.

Está claro que nuestra compañera estaba destinada a dejar una huella permanente. Su impronta y liderazgo feminista quedaron plasmados a partir de 1984, cuando, bajo la dirección socialista, fundó el Departamento de Servicios Sociales. Desde allí, Avelina no solo impulsó el programa que empoderó a numerosas mujeres en Errenteria, sino que también fomentó la participación femenina dentro del Partido Socialista.

Su visión y legado siguen vivos y continúan inspirándonos.

### ETXEBIZITZAREN ARAZOA LEHENTASUN

[EH Bildu]

Lehen udalerria izan gara Eusko Jaurlaritzari eskatzen izendatu dezala Errenteria tentsionatu etxebizitzari dagokionez. Egoeraren larritasunak gaia gure lehentasunen arten kokatzera eraman gaitu. Izendapenak bakarrik ez du arazoa konponduko, ezta bide hau Errenteriak bakarrik egiteak. Errealitatea konplexua da eta herri arteko eragina nabarmena. Horregatik beharrezkoa da, guk abiatutako bidea, gure inguruko herriek ere egitea.

Baina eskura ditugun tresna guztiak baliatu behar ditugu funtsezko baliabidea den etxebizitzarako sarbidea errazteko. Izendapenarekin batera hiru urterako ekintza plan bat osatu dugu, hainbat neurri planifikatu eta ikuspegi integral eta anbiziotsu batekin garatzeko. Baina bada neurri bat eremu tentsionatu izendatu bezain laster indarrean sartuko dena: alokairuaren prezioek ezingo dute gehiago igo. Alokairuak zenbatean dauden eta urterik urte zenbat igotzen ari diren ikusita, benetan neurri garrantzitsua!





# 40 urtez emakumeena

*Lau hamarkada bete ditu auzoetako emakumeen taldeen programazio iraunkorrak. Egoteko, batzeko eta ahalduntzeko espazio dira, auzoetatik herrira begira.*

Lau hamarkada eman dituzte biltzen, saretzen eta ahalduntzen. Errenteriako auzoetako emakumeen taldeek 40 urte daramate herriari ekarpena egiten. Pentsa daiteke talde bakoitzak bere auzoari bakarrik egiten diola ekarpen hori; ez da hala. Auzoetatik hasita, udalerrira zabalik den mugimendua da, eta ikasturteko programazio iraunkorraz gain (tailerrak, ikastaroak, eta bestelako ekintzak dituzte aukeran) Errenteriak berezko duen herri mugimenduaren zati dira. 1984-1985 ikasturtetik, ehunka baino, milaka izan dira auzoetako talde horiek antolatu dituztenekin bat egin duten emakumeak.

Azken ikasturtean zazpi izan dira egitarau iraunkorra eskaini duten elkarguneak: Agustinetako Alai, Beraungo Erlontzi, Galtzarabordako Gure Leku, Olibeteko Itzatu, Gabierrotako Laguntasuna, Pontikako Lore Toki, eta Erdialdeko Patxiku Zelaia. Izan ziren garaiak, ordea, hamaika auzotara zabaldu zela emakumeen taldeen zeregina. Errenteriako Udaleko Berdintasun Sailak adierazi du emakumeak bildu eta ahalduntzeko espazioak direla auzoetako topaguneak. Hasiera batean, emakumeen artean hain ohikoa ez zen kalera ateratze hori bermatzen zuten auzokako lagunarteek, eta akaso gehiegi ohartu gabe eta kontzientzia maila handiegirik gabe, bidea egiten joan dira tokian tokiko taldeak: «Errealitatea da 40 urte geroago ahalduntzerako espazio bihurtu direla. Haien burua eta auzoak ahaldundu dituzte. Sareak sortu dituzte auzoetan, eta herrian. Izugarria izan da orain arte egin duten lana. Eredugarri dira. 40 urtez lanean aritzea ez da txantxa».

Antolatzeko eta erabakitzeko ahalmena dute. Autogestio espazioak dira auzo bakoitzeko taldeak. Urtean zer egin talde bakoitzak bideratzen du, Udalaren babesarekin. «Hasieran, nolabait esateko, Udalak kudeatzen zuen guztia. Baina iritsi zen une bat emakumeen taldeei eskatu zitzaiela euren taldeen gidaritza hartzeko. Hasierako erresistentziak gaindituta, autokudeaketa horrek balio izan die gehiago ahalduntzeko eta ikusteko gai direla gauza asko eta asko egiteko», zehaztu dute Berdintasun sailetik: «Auzoen eta emakumeen izaera propioa zaintzea garrantzitsua da. Auzo bakoitzak egiteko eta izateko modu propioa du».

Zaila izango da Euskal Herrian Errenterian bezain errotuta dauden auzoetako emakumeen topaguneen antzerakoak topatzea. Hainbesteko indarra dutenak apenas izango dira. Horrela, Udalarentzat eredugarri dira talde horiek, eta ia denek duten kezka bati erreferentzia egin dio: errelebo falta. Izan ere, emakume talde horietan badira urte asko jardunean diren errenteriarrak, eta azaldu dute haien lekukoa hartu nahi dutenak nekez iristen direla. «Edonola ere, Udaletik babes osoa eskainiko diegu emakumeen taldeei. Jendeak uler dezala eskaintzen diren ikastaro eta tailerrez aparte, talde hauen balioa askoz harago doala. Garrantzitsu dira herrian. Zerbitzu eskaintza soil bat baino askoz gehiago dira. Gazteak hurbiltzen dira, bai. Baina kudeaketarako aurrera urratsa egitea kosta egiten zaie».

*Las asociaciones de mujeres de los barrios llevan 40 años enriqueciendo el municipio*

## Auzoetako ahotsak

Pintura, yoga, zumba, euskal dantzak, pilates, memoria jarduerak, ukenduak egiteko tailerrak, musikoak... Azken ikasturtean emakumeen taldeek zabaldu duten eskaintza askotarikoa izan da. Gabierrotako taldean buru-belarri lanean dabil Loli Barcenilla duela 39 urtetik: «Esan daiteke pandemiagatik hainbat jarduera lausotu direla. Tartean, Martxoaren 8an kiroldegian egiten zen ekitaldi handia. Baina oraindik ere biltzen jarraitzen dugu. Polita da etxetik atera, eta egotea».





## Celebración en Lekuona

No es fácil subsistir desde el voluntariado a 40 años de trabajo. Pero los grupos de mujeres de los barrios de Errenteria han conseguido tejer una red de compromiso e ilusión desde cada asociación, pero siempre mirando al pueblo. Se han empoderado juntándose, hablando, compartiendo momentos y vivencias, y haciendo camino desde la autogestión y el empoderamiento. Han hecho pueblo durante cuatro décadas. Seguirán con ello.

Todo eso quedó patente en el acto que se hizo en Lekuona Fabrika el junio. El Ayuntamiento quiso reconocer, por todo lo hecho, a todas las que han participado de un modo u otro en los grupos de mujeres durante estos 40 años. Hubo momentos muy emotivos, sobre todo cuando se ensalzó la labor de las pioneras de cada grupo, pero sobre todo se notó complicidad, alegría y ganas de seguir hacia delante, sin olvidar lo hecho hasta ahora.



Hasi zirenean emakumeen profila etxeko langile eta zaintzailearena zela nabarmendu du Barcenillak, baina egun, lanean dabiltzan emakumeak ere badituztela ziurtatu du. «Jarduerak egiten ditugu, eta oso gustura ibiltzen gara. Baina elkarren berri izateko, gauza on eta txarrak partekatzeko, eta elkar laguntzeko espazioak ere badira emakumeen taldeak. Txantxetan esan ohi dut psikologoen laguntzarik ez dugula behar emakumeen taldeei esker. Onura handia egiten digu batzeak».

*Funcionan desde la autogestión y el empoderamiento, ellas deciden qué y cómo hacerlo*

Auzoan erabakiak hartzea; garrantzitsua da hori Barcenillarentzat. Onartu du hasierako urteetako Udalaren gidaritza osoarekin errazago zitzaiela dena, baina autokudeaketa ereduarekin lan gehiago izan arren, zer eta nola egin euren esku izatea asko eskertu du. «Zerbaitekin gustura ez bagaude, aldatzen dugu. Zerbait gehiago egin nahi badugu, egiten dugu. Eskertzekoa da burujabetza maila hori izatea. Gure ahalduntzerako bidea ere da hori, erabakiak hartu eta horiek egikaritzeko ahalmena izatea».

Beraungo Erlontziko partaide da Maite Urretabizkaia. Azpimarra jarri du jardueretan parte hartzea ongi dagoela. Baina emakumeak biltzea oso garrantzitsua dela uste du. Adierazi du pandemia aurretik emakume gehiago biltzen zela taldera, baina hala ere, martxan direla. Auzoan egiten dituzten jarduerez gain, azaldu du beste auzoetako taldeekin elkarlanean hainbat jarduera egiten dituztela, tartean txangoak. «Badugu indarra oraindik ere. Izan dira jarduerak urteetan zehar eten edo ahuldu direnak, baina gustura gaude egiten dugunarekin», aitortu du.

Urretabizkaiarentzat garrantzitsua da talde bakoitzak autokudeaketarako gaitasuna izatea. Erabakiak auzoetatik hartzea beharrezkoa dela azaldu du. Baina nahiko luke jende gazte gehiago hurbiltzea taldeetara, eta haiek etxetik kalerako jauzia eman zuten bezala, gazteek taldeetara urratsa egitea nahiko luke: «Batzuk baditugu urte batzuk lanean. Ongi legoke erreleboa. Baina tira, ahal den neurrian jarraituko dugu. Poztekoa da 40 urte bete izana. Bada zerbait. Aurrera egingo dugu».

## Argazki zaharra

Oiartzun ibaiak, herria zatitu baino, batzen du; Errenteria ibaiaren inguruan hazi da. Horretarako ezinbesteko dira zubiak. Azkena jada jarri dute, Iztieta auzoaren eta Altzate auzoa izango denaren artekoa. Baina udalerrian osperik duen zubirik bada, Panierrekoa da. Herritarrek jarritako izena da, Panier Fleuri goi mailako jatetxea ondo-ondoan izan zuelako urte luzez. Irudia 1926koa da, gastronomiaren tenplu izan zena gorenean zegoenekoa.




## Ba al zenekien...

La población de Errenteria de más de *65* años es de *9.430* personas.

Errenteria tiene *39.665* habitantes (Eustat, *2023*). Entre esa población, el *23,8%* tiene más de *65* años, *9.430* errenteriarras en total. 5.531 son mujeres, y *3.899* hombres. Por otra parte, la edad media de todas las mujeres de la villa es de *47* años, mientras que la de los hombre es de *44*.



## Txoko bat

Eraikuntza militarra da San Markoko gotorlekua, eta Errenteria defendatzeko eraiki zuten Bizarain mendian. 1888an inauguratu, eta 1960ko hamarkadara arte Espainiako armadaren esku izan zen. 260 metroko altueran, eskualdeko begiratokia da. Lau Haizeta parkearen barruan dago, eta aisia-kultur gune da egun. Uztail eta abuztuan bertako informazio puntua eta museoa asteazkenetik igandera daude zabalik, 10:00-14:00 eta 16:00-18:00etarako tarteetan.

# BATU ZAITEZ

# únete

## a los canales de

## HERRI BIZIAren

# TELEGRAM

# WHATSAPP

# KANALETARA




HERRI BIZIA

ERRENTERIA UDALA